

**II. ATALA**
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Mungiako Udala****2018ko Lan-eskaintza Publikoa**

Alkateak 2018ko apirilaren 20an ondoko Dekretu hau eman du:

Lehenengoa: Plantillan gertatutako aldaketak ikusirik, Udalaren 2018rako Enplegu Publikoko Eskaintza onesten da, Erabaki honen eranskinean jasotakoan arabera. Hala egiten dugu, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutua jasotzen duen apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 70. artikuluari jarraituta, eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legearen 22. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera; bigarren horrek dioen bezalaxe, aurrekontuan diru-kopurua esleitua duten giza baliabideen premiak langile berriekin bete behar direnean, enplegu publikorako eskaintza egingo da.

Bigarrena: Enplegu Publikoko Eskaintza bat dator luzatua izan den 2017rako Estatu-ko Aurrekontu Orokorra arautzen dituen ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 19. artikulua-rekin, langile berrien kopuruak ez duelako gaudituko Udaltzaingoan ordeztu beharreko langile-tasaren %100.

Hirugarrena: Eranskinean jasotakoak izango dira Enplegu Publikoko Eskaintzau-rrerikusitako plazei dagozkien hizkuntza eskakizunak. Hala izango da Euskal Funtzio Pu-ublikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen V. Tituluan (hizkuntza normalizazioari bu-ruzkoa) adierazitakoa betetzeko, eta apirilaren 15eko 86/97 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorrita (horrek arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioe-tan euskararen erabilera). Halaxe egingo da, Enplegu Publikoko Eskaintzari dagokion deialdia plazak betetzera zuzendua dagoen arren, eta ez lanpotuak betetzera zuzenean —lanpostuei dagozkient hizkuntza eskakizunak Udalaren indarreko lanpostuen zerren-dan ezarrita daude, eta bat datos bere egunean Eusko Jaurlaritzako órgano eskudunek egindako txostenekin—.

Eskaintzen diren plazek derrigorrezko hizkuntza eskakizuna ezarrita daukate (dago-kion deialdian zehaztuko da dagokion hizkuntza eskakizuna), nahitaezkoa izango da hiz-kuntza eskakizun hori izatea plaza eskuratzeko; hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da oinarriant zehaztutako moduan.

Ikusirik Giza Baliabideetako atalburuak 2018ko apirilaren 13an egindako txostenak; Kontu-hartzailetzak egindako txostena. Eta apirilaren 2ko 7/1985eko Legearen 21. arti-kuluan jasotako eskumenak baliatuta, Alkatetza honek zera

XEDATU DOT:

Lehenengoa: 2018ko urteari dagokion EPEa onartzea.

Bigarrena: Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Mungián, 2018ko apirilaren 23an.—Alkatea, Ager Izagirre

**ERANSKINA**
SARBIDE LIBREKO SISTEMA

Taldea (7/07 legearen artikulua arabera) Grupo (según artículo Ley 7/07)	Sailkapena Clasificación	Plazaren deskribapena Descripción de la plaza	Plaza kop. N.º plazas	HE Perfil	Ezagupena Conocimiento
C1	Adm. Bereziko Eskala. Zerbitzu Berezietako Azpieskala: Klasea: Udaltzaingoa	UDALTZAINA	2	2	B, A2
	Escala de Adm. Especial. Subescala de Servicios Especiales: Clase Policía Municipal	AGENTE P.M.			